

AEB-EN MUGA-ZERGAK INPERIALISMOA DA, ERGELA!

Bandera *amerikanoz* inguratuta, muga-zergen oldarraldi berria iragarri zion munduari Donald Trumpek apirilaren 2an. Geroztik hamaika astindu jasan dituzte burtsek eta nazioarteko merkataritzak.

Baina hau ez da zoro baten boxeorako ringa bakarrik: AEBetako politikan hamarkada askotan egosi den pentsamendu-korrontea ezkututzen du atzean, basailutzan eta inperialismoan oinarriturikoa.

 URKO APAOLAZA AVILA

Ezin zuen bestela izan. Etxe Zuriko Arrosen Lorategian, Moisesek tau-lak eskuan hartu izan balitu bezala, halaxe azaldu zen apirilaren 2an Donald Trump, berrogeita hamar urtez bere aberri kuttunari munduak egindako iraina kitatzera, herrialde bakoitzari jarriko dion muga-zerga zehaztuta: honi hainbeste gaizki portatu delako, beste honi gutxiago txintxoagoa izan delako, eta zuri askoz gehiago gaizto halakoa... *tas tas* emango dizut! Mihi gaiztoek diote ChatGPT erabilita egin duela kalkulua munduko herrialde boteretsuenaren buruak.

Liberazioaren Eguna izendaturikoan, %50 arteko muga-zergak iragarri zituen AEBetako presidentek. Hau idazten ari garen unean %10eko muga-zerga globala dago indarrean, gainerako zerga handia goei 90 eguneko menia eman baitie. Txinari, ordea, %125 muga-zerga ezarri dio, eta honek %84rekin erantzun du. Europar Batasunak, bere aldetik, tentuz jokatu nahi du, eta AEBetako produktu ugari ezarri behar zien %25eko muga-zerga 90 egun ez atzeratu du. Nolanahi ere, garbi dago gerra komertziala abian dela.

GERRA “TUNTUNIK” BA OTE?

“Historiako gerra komertzial tuntunena da”, hala deskribatu du ekonomia gaiak lantzen dituen *The Wall Street Journal* egunkari prestigiodunak muga-zergen afera. Baina ba ote gerra tuntunik? Ez dira gutxi neurri horren kontra azaldu diren Alderdi Errepublikarreko ki-deak, baita orain arte Trumpen ondoan izan diren enpresariak ere, tartean Elon Musk milioidun eta AEBetako presidentaren goi kontseilaria.

Kanpoko produktuei tarifak igotzeak AEBetan inflazioa eta atzeraldia ekar dezakeela diote aditu ugari, estatubatuar arruntak ez ezik mundu osoak sufrituko duela. Adibidez, JPMorgan Chase AEBetako inbertsio banku handienaren kontseilari gorenak, Jamie Dimonek, esan du “desastrea” litzatekeela epe luzean neurri horiek mantentzea. Bankuak bere bezeroei barne-txostena igorri zien *Liberazioaren Egunean* bertan, izenburu kezagarriarekin: *There will be blood* (Odola egonen da). Bloomberg albiste agentziak filtraturiko txosten horretan, JPMorgane-ko ekonomialari buru Bruce Kasmanek

azaltzen du atzeraldi global bat izateko aukera %40tik %60ra igo dela.

1930EKO ADIBIDE TXAR BAT

Atzera begiratzuz gero, historialariek berehala topatu dute antzeko situazio bat. Adibide txar bat, esan dezakegu. Trumpek sarritan aipatu izan du bere diskurtsoetan 1930ean Willis C. Hawley eta Reed Smoot senatariak sustaturiko muga-zergen legea, *Hawley-Smoot Legea* bezala ezaguna. “Analista batzuk konbentzitu daude lege horrek paper garrantzitsua jokatu zuela Bigarren Mundu Gerra elikatzeke”, dio BBC telebista kate-publikoak.

1929ko burtsen krakak sorturiko krisi betean, AEBek protekzionismoa areagotzeko neurriak hartu zituzten, eta lege horrekin 900 produkturi batez beste %20ko muga-zergak jarri zizkioten –nahiz eta mila ekonomialari inguruk Herbert Hoover presidenteari eskatu halakorik ez egiteko–. Ondorioz, munduko merkataritza bi heren murriztu zen eta horrek Depresio Handia areagotu zuen. Irakurleak gehiago jakin



Reciprocal Tariffs

Country	
China	
European Union	
Vietnam	
Japan	
	92%
	0%
	2%
	61%
	60%
	7%
	97%
	10%
	60%
	10%
	58%
	10%
	88%

nahi badu, jo dezake ARGIAren zenbaki honetako *Denboraren Makina* atalera (39. orrialdea) eta Nagore Irazustabarrenak azalduko dio.

ERO BAT GOLF ZELAIAN?

AEBak “berriz aberats egiteko” taula sakratua aurkeztu eta asteburu horretan, telefono guztiak dantzan zituen bitartean, Trumpek Floridako bere resort pribatuan golfean jokatzeko jarraitu zuen lasai asko, *green*-etik kanpo gertatzen zenari sorgor itxurak egiten. “Ah, baina orduan ez da farol bat?”, galdetzen diote elkarri, pixalarriak jota, mundu osoko banku, enpresa eta erakundeetako jake beltzdunek. Aste-bete iraun die oraingoz estutasunak, baina batek daki berriz joan beharko ote duten ukuilu atzera zigortuta, *mekatxis!*

Jacobin aldizkarian aurkitu dugu arestiko galdera horri erantzun diezaiokeen pista bat: “Neurri horiek ez dira botereak txoratutako ero baten delirioak. Zirkulu politiko estatubatuarren barruko pentsamendu-korronte sendo batetik sortu dira, gutxienez 1990eko hamarkadatik datorrena”. Hala idatzi du Dominik A. Leusder ekonomialariak *On 'Liberation Day' Trump Signed America Up for Stagflation* (Liberazioaren Egunean Trumpek AEBak estanflazioa kondanatu ditu) artikuluan. Bere esanetan, Trumpek merkataritzarekiko duen jokabidea koherentea izan da 1980ko

Toyota, Honda, Nissan... 1980ko hamarkadako estatubatuarren artean milioika saltzen ziren bitartean, “Tokioko kaleetan ez dut Chevrolet bakar bat ere ikusten”, zioen Trumpek

hamarkadatik, gutxienez Japoniako merkatal-etekinak bere amorruaren jomuga bihurtu zirenetik: “[Muga zergekin] emandako ikuskizunetik harago, oso gogorra dirudien arren, bada garaia egungo administrazioa kritikatzeko Trump serio hartzeko”.

JAPONIATIK DATOZ NISSANAK

Japonia, aipatzen digu Leusderrek... Zer gertatu zen ba Japoniarekin laurogeitan? Petrolioaren krisiaren eraginez AEBetako industria dekadentzia sartu zen bitartean, herrialde asiareko produktuak erraz inportatzen hasi ziren, batez ere automobilak: Toyota, Honda, Nissan... milioika saltzen ziren estatubatuarren artean. “Tokioko kaleetan ez dut

Chevrolet bakar bat ere ikusten”, zioen ernegatuta, jadanik ezagun egiten hasi zen Donald Trump enpresariak.

Baina japoniarren defizit komertziala ez zen bere obsesio eksklusiboa. *The Guardian*-ek kontatzen duenez, garai hartan *The New York Times*-ek berak portada esanguratsua ekarri zuen “Japoniaren arriskua” izenburupean, Nissan markako auto bat moilara nola deskargatzen zuten erakusten zuen argazki handi batekin. Azkenean, 1985ean New Yorkeko Plaza Hotelean Japoniak akordioa sinatu zuen bere merkaturak “irekitzeko”, G5 herrialdeen presioaren ondorioz. Hala ere, Japoniak interes tasak jaitsi eta kreditu errazean oinarrituriko higiezin burbuila elikatu zuen –1989an Mitsubishi Estatek New Yorkeko Rockefeller Center eraikin mitikoa erostearaino– harik eta burbuila 1997an lehertu eta “hamarkada galduen” garaian sartu zen arte; bere ekonomia entzefalograma planoan eduki du orduz geroztik.

KENTUCKY FRIED CHICKEN PROBATZEAN...


Egungo AEBetako haize protekzionistak ulertzeko beste data bat duela 25 urtekoa da, 2001ean Txina Munduko Merkataritza Erakundeko (MME) kide gisa onartu zutenekoa. Gauza da Washingtongo Kapitolioan kontrako ahotsak errepublikar zein demokraten aulkietatik entzun zirela, herrialde horrekin muga-zergak kentzeak AEBetako industria hustuko zuela uste baitzen.

The Lever atari ezkertiareko podcastean David Sirotak –Bernie Sandersen aholkulari izandakoa eta orriotan lehenago ere aipatua– Peter Goodman ekonomia analistarekin hitz egin du: “Bill Clintonek, zinismo handiz esan zuen Txina demokratizatzea zela helburua, Txina AEBetan integratzea, eta txinatar kontsumitzaileek Kentucky Fried Chicken probatzen zutenean hautestontziak eskatuko zituztela... Hori zentzugabekeria bat da”, dio Goodmanek. Eta hala, duela 25 urteko kritiken oihartzunak gaur eguneraino “danbor baten gisan” iritsi direla uste du Sirotak.

BASAILUTZA ZORIONTSUA

Historian zehar, muga-zergak erabili izan dira herrialde bateko industria babesteko, hau oraindik hastapenetan dagoenean. Hain justu, MME ustez muga-zerga eta aduana horiek arautzeko sortu zen 1995ean, baina funtsean amaitu du merkatu librea bermatu nahi eta

AEBetako muga-zergen bilakaera





TOSHIBA enpresaren inguruko eskandalu bat azaleratu zenean, 1987an, senatari errepublikar batzuek marka horretako irratiak txikitu zituzten modu honetan.

ezinean dabilen erakunde fantasma bat izaten. Gertatzen dena da merkatu librearen toxikoa dela, hori ez da sekretua, eta mundu osoan desberdintasunak eta esplotazioa areagotu baino ez dituela egiten.

Hortaz, globalizazioak huts egin du, munduko merkataritza ordena berri bat ari da erretzen, baina horrek esan nahi du protekzionismoaren garaira itzuliko garela? "Neurri horiek ez dira protekzionismoa, baizik eta inperialismo

neurrigabea", dio Martine Orange *Mediapart* hedabidean *Droits de douane: Trump invente la 'vassalisation heureuse'* (Muga-zergak: Trumpek 'basailutza zoriontsua' asmatu du) artikuluan: "Konbentzita daudenez AEBetako merkatura sartzea pribilegio bat dela, Trumpek eta bere adiskide maiteek nahi dute beste herrialdeek ohore hori izateagatik ordaintzea".

Italiako Errepublikako presidente Sergio Mattarellari lapurtuta, "basailu-

tza zoriontsua" kontzeptua erabili du *Mediapart*-eko kazetariak, Trumpen jorkaldia deskribatzeko: "Nahi duena da herrialde bakoitzak definitzea bere lekua inperio estatubatuarrean, leialtasuna eta alienazioa, egiteko prest dagoen kontzesio ekonomiko eta politikoen trukean. Hitz gutxitan, herrialde bakoitzak AEBetako presidentearekin negoziatu dezala zein izango diren eramango dituen kateen pisua eta prezioa". 90 egun dituzte horretarako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com

